



II SUMMA ALDAPETA KULTUR OLINPIADAK

2017/2018 ikasturtea

Donostiako SUMMA-Aldapeta Ikastetxeko **IGEk eta irakasleek** “Alberto Echeverría” Literatur eta Txosten tematikoen lehiaketa deitzen dute urtero, sormena eta ezagutza sustatzeko eta hezkuntza jarduerak bultzatzeko asmoz.

Aurten, lehiaketa hau, berriro ere, II Kultur Olinpiadaren barruan izango da. II Kultur Olinpiada honen helburua beste disziplina artistiko batzuk sustatzea da, konkretuki, Argazkigintza, Marrazketa eta Musika. Horregatik, Literatur eta Txosten tematikoen lehiaketa ostean, beste hauek egingo dira:

- Argazkigintza Rally-a (aurreko urteotan bezala).
- Marrazketa Lehiaketa
- Musika Lehiaketa.

Abenduaren, urtarrilaren, otsailaren eta martxoaren zehar izango dira eta sariak zeremonia berean entregatuko dira.

Hona hemen lehenengo lehiaketaren, hau da, Literatur eta Txosten tematikoen oinarriak:

XVI. “ALBERTO ECHEVERRÍA” LITERATUR ETA TXOSTEN TEMATIKOEN LEHIAKETA

Modalitateak

1. Lehiaketak bi modalitate ditu: **Literatur lehiaketa** eta **Txosten Tematikoen lehiaketa**.

Parte-hartzaileak

2. **Literatur lehiaketan** ikastetxeko ikasle orok har dezake parte.
3. Lehen Hezkuntzan hiru atal ezarri dira, honako xehetasun hauekin:
 1. eta 2. LH.-
 - KOMIKIAN soilik hartuko dute parte.
 - Bikoteka edo taldeka (4 kide gehienez) hartuko dute parte, irakaslearen irizpidearen arabera.
 3. eta 4. LH.-
 - Literatur lehiaketan soilik hartuko dute parte (poesia, komikia eta narrazio laburra).
 - Banaka lehiatuko dute.
 5. eta 6. LH.-
 - Literatur lehiaketan (poesia, komikia eta narrazio laburra) eta lehiaketa tematikoan hartuko dute parte.
 - Banaka lehiatuko dute.
4. **Txosten Tematikoen Lehiaketan** Ikastetxeko LHko hirugarren zikloko ikasleek (5. eta 6. maila) eta DBHko ikasleek har dezakete parte.
5. Pertsona orok bi modalitateetan har dezake parte (Literatur lehiaketan eta Lehiaketa tematikoan).



Literatur lehiaketa

6. LHko 1. eta 2. mailan izan ezik, partaideek banaka lehiatuko dute Literatur lehiaketan.
7. Literatur lehiaketari dagokion modalitatean, olerkiak, narrazio laburrak edo komikiak aurkez litezke. Lanen generoa (lirikoa, fantasiakoa, abenturazkoa, misteriozkoa, e.a.) norberaren aukera izango da.

Txosten Tematikoen lehiaketa

8. Txosten Tematikoen esparruan ere banaka parte har liteke, baina baita gehienez 5 kideko taldeetan ere.
9. Txosten Tematikoen modalitatean ikerketa-, erakusketa- edo dokumentazio-lanak aurkez litezke. **Originalak** behar dute izan, eta, horietara mugatuko ez diren arren, LHko hirugarren zikloko eta DBHko irakasgaietan lantzen diren gaien buruzkoak (**internetetik zuzenean inprimatutako orriak berehala baztertuko dira**).
10. Modalitate horretan bereziki hartuko dira aintzat **iturri bibliografikoetan** oinarritutako eta iturri horien zerrenda egiten duten lanak.

Bi modalitateetako oinarri komunak

11. **Hizkuntza.**- Lanak **euskaraz** ala **gaztelaniaz** idatz daitezke.
12. **Formatua.**- Lanak DIN A4 formatuan aurkeztuko dira, orrialde bakarrean idatziak, eta eskuz ala makinaz idatziak.
13. **Identifikazioa.**- Lanak izenburuari esker soilik identifikatuko dira, ezin baitute eduki egilea nor den adieraz dezakeen xehetasunik. Aparteko kartazal itxi baten barruan egilearen izen-abizenak adieraziko dira. Kartazalaren kanpoaldean lanaren izenburua eta lehiatuko den modalitatea soilik ipiniko dira. **Baldintza hauek bete ezean, ez da lanik onartuko.**
14. **Nola eman.**- Lanak idatziaren gaiarekin lotutako irakasgaiaren **irakasleari** eman behar zaizkio.
15. **Onartzeko epea.**- Lanak **onartzeko epea** honako hasiera eta bukaera daten bitartekoa izango da: **2018ko abenduaren 11a – 2018ko otsailaren 23a.**
16. **Lehen hautaketa.**- Lehen fasea igaro ahal izateko, lanek, literatur eta/edo dokumentazio kalitate nabaria izateaz aparte, honako nahitaezko baldintzak bete behar dituzte:
 - a) Txukuntasuna lanak aurkezterakoan.
 - b) Eskuz idatzia bada, kaligrafia zaindua.
 - c) Ortografía onargarria baino hobea.
17. **Digitalizazioa.**- Irakasleek hautatutako lanak ikasleek (irakasleek abisua eman ostean) bidaliko dituzte helbide honetara: ige@summa-aldapeta.es. Eskuz idatziak badira, eskaneatuta bidaliko dira. Jasoko dituen pertsonak zainduko du lanen anonimatua.
18. **Epaimahaia.**- Irakaslegoak aukeratuko ditu epaimahaikideak, eta haien epaia apelaezina izango da.
19. **Sariak.**-
 - Literatur atalean, zikloaren arabera (LHko 1. zikloa, LHko 2. zikloa, LHko 3. zikloa, DBHko 1. zikloa, DBHko 2. zikloa eta Batxilergoa), azpigenerearen arabera (narrazio laburra, poesia eta komikia) eta hizkuntzaren arabera (euskara eta gaztelania) sari bana emango da; bestalde, alor tematikoan ere ziklo (LHko 3. zikloa, DBHko 1. maila eta DBHko 2. zikloa) eta hizkuntza bakoitzeko sari bana izango da. Epaimahaia, gainera, aipamen berezia egin diezaioke aurkeztutako edozein lanari. Edozein sari gera liteke eman gabe, baldin eta aurkeztutako lanek gutxienezko kalitatez ez badute.



- Literatur lehiaketa banaka irabazten duen pertsonak **Diploma** eta **50 euroko** (Lehen Hezkuntza) edo **100 euroko** (DBH eta Batxilergoa) txartela eskuratuko du saritzat.
- Txosten tematikoko eta taldekako literatur lehiaketako (LHko 1. eta 2. mailak) irabazleek sari hau jasoko dute: **Diploma** eta **50 euroko** (Lehen Hezkuntza) edo **100 euroko** (DBH) txartela.

20. Parte-hartzaileen balorazio akademikoa.- Lehiaketan parte hartzea, aurkeztutako lanaren gaiarekin lotutako irakasgaiaren balorazio akademikoa egiterako orduan, elementu gehigarri bat izan daiteke, betiere aipatu lanak oinarri hauen 16. puntuari adierazitako baldintzak betetzen baditu.

21. Epaiaren argitaratzea.- Bi modalitateetako lan irabazleak **2018ko apirilean** emango dira aditzera. Ikastetxeko webgunean argitaratuko dira irabazleen lanak.

22. Oinarriak onartzea.- Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar. Oinarri hauetan aurreikusi ez diren gertakariak dagokion epaimahaiak ebaztuko ditu.

❖ TXOSTEN TEMATIKOAK

Ondoren zerrendatzen diren gaiak aukera sorta bat osatzen dute soilik; ziur zuen irakasleek iradokizun gehiago badituztela:

- Santa Maria Marianisten Ikastetxeko eraikina.
- Summa Aldapetako eraikin berria.
- Kataluniako egoera.
- Summa eta badminton.
- Adimen emozionala
- Haurren eta gazteen talentua: ausardia ala beldurra?
- Teresa de Calcuta: pertsonaia historikoa.
- Krisiaren ondorio sozialak.
- LHko eta DBHko elikadura ohiturak Ikastetxean.
- Ikastetxearen eta Familiaren arteko koherentzia.
- Lurraren historia geologikoaren hastapenak.
- Donostiako historia.
- Bost zentzumenak: nola funtzionatzen duten.
- Grabitate indarra: nola probestu berau eta naturaren beste zenbait indar.
- Sare sozialak. Erabilpen egokia eta dakarten arriskua.
- Funtzio matematiko nagusien bilduma: errepresentazioa eta erabilera.
- Zenbakien errepresentazio sistemak.
- Europar Batasunaren geografia fisikoa, politikoa eta giza geografia.
- Donejakue bidea.
- Barne hartzea hezkuntzan, nola jaso ohi dugu desberdina den hura?
- Poesia eta rap-a.
- Literatura unibertsaleko pertsonaiak (Don Juan, Romeo eta Julieta, Frankenstein, Peter Pan, e.a.)
- Zinema eta Literatura.
- Indarkeria kirolean.
- Aisialdiko aukera zentzudunak eta, aldi berean, erakargarriak.
- Nola izan ekintzaile.
- Ingurugiroaren jasankortasuna eta birziklapena. 3 B-ak (beheratu-birziklatu-berrerabili).

❖ LITERATUR LEHIAKETA:

• **Poesia:**

- Partaideek aukeratuko dituzte bai tonua bai gaia (betiere oinarrizko begirunea aintzat hartuz), baita errima eta neurria ere.
- Luzera nahiko askea izango da, izan ere, gutxienez 10 lerro izango ditu eta gehienez 25.
- Olerkietan adierazitako sakontasuna eta zintzotasuna bereziki hartuko dira kontuan.



- **Narrazio laburra:**

- Tonua eta gaia poesiari buruzko atalean aipatutako baldintzen arabera arautuko da.
- Gehienez 5 orri izango ditu lanak.
- Besteak beste, originaltasuna, interesa sortzeko eta mantentzeko gaitasuna eta hizkuntzaren erabilera egokia hartuko dira kontuan.

- **Komikia:**

- Narrazio bisualaren azpigenero hau ere barne hartu dugu.
- Narrazio laburraren arau berberak bete behar dira.

Hiru modalitateetan aurkezten diren lanek inon argitaratu gabeak eta beste ezein lehiaketan saritu gabeak izan behar dute.

Animatu parte hartzera!